



OIARTZUNGO
UDALA

2021 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

MEMORIA

1 Sarrera

2020 eta 2021eko aurrekontuen diseinua eta kudeaketa, zalantzarik gabe, COVID19aren baitan egongo dira. 2020an zehar, aurreikusi gabeko neurri bereziak hartu behar izan dira aurrekontuetan, erabili izan ezin diren partidak kenduta ustekabeko gastuak finantzatzeko. 2021ean ere antzeko egoera aurreikusi daiteke, COVID19ak eragindako ondorioak desagertzen ez diren bitartean. Ondorioz, 2021eko aurrekontuan legegintzaldiko ildo nagusiak txertatu diren arren, urtean zehar aldaketa nabarmenak egotea ez da baztertzen.

2021eko aurrekontuen helburu nagusiak honakoak dira:

- Udalak herritarrei zor dizkion zerbitzuak bermatzea eta batez ere, hauen gizarte ongizatea bermatzea.
- Enplegua mantentzea. Udalak zuzenean eta zeharka kontratatzen dituen langileen enplegua eta lan baldintzak mantentzea.
- Herriko azpiegitura eta ekipamenduak sortu nahiz hobetzeko inbertsioak bermatzea.
- Herritar eta eragileen dinamizazioa bultzatzea.

Gizarte ongizateari dagokionean, kolektibo ezberdinei laguntzeko neurriak mantendu edo indartuko dira. Ohiko dirulaguntza eta aholkularitza zerbitzuez gain, Gizarte eta hezkuntza esparruko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko zerbitzua martxan jarriko da. Guztira, % 5eko goera aurreikusi da arlo honetan.

Enplegua eta lan baldintza duinak mantentzeko ahaleginean, orokorrean udal langileen kopurua mantenduko da, eta zerbitzu batzuetan igo ere bai. Udalak parte hartzen duen erakunde ezberdinetan enplegua mantendu ahal izateko neurriak hartuko dira. Neurri hauen eraginez langileria gastuak % 6 igoko dira.

Azpiegiturei dagokionean, 2021a 2019-2023 legegintzaldiko proiektu nagusiei bultzada emateko urtea izango da. Mendiburu 14ko eraikinaren lanek aurrera jarraituko dute eta Altxibarko urbanizazio lanak hasiko dira. Aurreko urtetan auzoak egituratu eta oinarrizko beharrak asetzeko lanak egin dira. Gaur egun, azpiegituren ikuspuntutik behar handiena duena eta aldaketa nabarmena izango duena Altxibar da. Bestalde, COVID19arekin auzo batzuetan internet sareak dituen gabeziak agerian geratu dira. Landa eremuko internet sarea hobetzeko ahaleginetan, 2021ean egoeraren azterketa eta aukeren balorazioa egingo da.

Azkenik, jakin badakigu, Oiartzunen kultura, euskara, kirola, feminismoa eta hezkuntza arloak herritarren lanari esker aurrera ateratzen direla. Honek udalaren aurrekontuetan isla du, % 18a elkarte, erakunde eta eragileak laguntzeko erabiliko baita.

2 Prozedura

2021eko aurrekontu proiektuaren prozesua 2020ko ekainean hasi zen, berau egiteko egutegia finkatuz. Egutegi hori finkatzerako garaietan kontuan hartu dira, besteak beste, legediak eskatzen dituen pausoak, auzotarrekin egindako bileren egutegia, udal korporazioko beste talde

politikoen parte hartzea eta Aldundiko funtsa zehazteko dagoen egutegia. Egutegi honetan aldaketa nabarmen bat egon da, izan ere, beste urteekin alderatuta onarpena abendura atzeratzea erabaki da. COVID19aren eraginez, udal aurrekontuen kudeaketa egiteko neurri bereziak hartu dira beste erakundeetan, hala nola zorpetze maila handitzea. Behin betiko informazioa eduki arte aurrekontuen onarpena atzeratzea erabaki da.

2020ko irailean sailetatik lehenengo proposamenak jaso ziren 2021ean izango diren beharrak aztertuz. Auzo batzarretako eskaerekin batera aurrekontuen lehenengo zirriborroa osatu da.

Urtero bezala aurrekontuen zirriborroa auzo guztietan aurkeztu da. Horrez gain, aurrekontuen inguruko eskaerak jaso dira. Gehienak auzoetako lanen inguruan txertatu beharrekoak, baita herriko zerbitzuen ingurukoak ere. Guztira 78 herritar bertaratu dira bilera horietara.

Lehenengo zirriborroa osatuta, Ogasun Batzordean aurkeztu zen eta oposizioko alderdiari ekarpenak egiteko aukera eman zitzaion.

Azaroan, lehenengo zirriborroa oinarri hartuta, sailetatik bigarren doiketa bat egin zaio aurrekontuari. Horrez gain Foru Funtsaren 2021eko aurreikuspena eta udal zorpetze maila handitzeko baimena baliatu dira, diru-sarrerak handitzeko. Abenduaren hasieran, oposizioko alderdiaren eskaerak entzun eta txertatu dira aurrekontuan.

Abenduko azken batzordean behin betiko aurrekontu proposamena aurkeztu da eta Osoko Bilkuran onartu dira.

Prozedura hau jarraitu ondoren jasotako emaitza da 2021eko aurrekontua.

3 Aurrekontuaren deskribapena. Datu orokorrak.

2020arekin alderatuta, 2021eko aurrekontuan % 1,89ko igoera aurreikusten da. Lehen aipatu den moduan, aurrekontuekin COVID19aren ondorioei aurre egin nahi zaie. Horretarako, aurrekontuen igoeran osagai nagusienak langileria gastuen igoera eta inbertsioen igoera da. Inbertsioak, zeharka bada era, udalak ekonomian eragiteko duen tresna ere badira. Gastu hau mantendu ahal izateko, udalak 2021erako onartu zaion zorpetzeko kopuruaren zati bat erabiliko du, 500.000 €, hain zuzen ere.

	Aurrekontuaren bilakaera			
	2021	2020	2019	2018
Gastuak guztira	17.921.159,00 €	17.589.189,36 €	17.272.680,88 €	16.704.905,00 €
Sarrerak guztira	17.921.159,00 €	17.589.189,36 €	17.272.680,88 €	16.704.905,00 €
Aurrekontu aldaketa [%]	1,89	1,83	3,40	-
Inbertsioak	2.708.842,33 €	2.443.007,26 €	2.471.640,05 €	2.304.660,68 €
Inbertsioak [%]	15,12	13,89	14,31	13,80

4 Diru-sarrerak

Hurrengo taulan, diru-sarreran laburpena ikus daiteke kapituluka.

SARRERAK KAPITULUKA	2021	Aurrekontuaren zatia [%]	2020	Aldaketa [%]
1. Zuzeneko zergak	6.102.500,00 €	34%	5.832.300,00 €	4,63
2. Zeharkako zergak	300.000,00 €	2%	300.000,00 €	0,00
3. Tasak	3.159.160,00 €	18%	3.110.660,00 €	1,56
4. Transferentzia arruntak	7.797.333,00 €	44%	8.196.778,36 €	-4,87
5. Ondare sarrerak	62.165,00 €	0%	63.065,00 €	-1,43
6. Inbertsio errealak besteren.	0,00 €	0%	0,00 €	0,00
7. Kapital transferentziak	0,00 €	0%	86.385,00 €	-100,00
8. Finantza aktiboak	1,00 €	0%	1,00 €	0,00
9. Finantza pasiboak	500.000,00 €	3%	0,00 €	0,00
Guztira	17.921.159,00 €		17.589.189,36 €	1,89

Laburbilduz, honakoak dira aldaketa nagusiak diru-sarreratan:

- Zuzeneko zergatan 2020ko erroldatan izandako aldaketak txertatu dira. Orokorrean, zerga hauetan % 4,63eko igoera aurreikusten da:
 - 55.000 € gehiago Ondasun Higiezin Zergan.
 - 65.000 € gehiago Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen zergan.
 - 150.000 € gehiago Hirilur Balio Gehikuntzan.
- Transferentzia arruntetan % 4,87ko jaitsiera aurreikusten da. Kasu honetan, jaitsiera Foru Funtsaren murrizketaren ondorio da, 2021ean aurreko urtearekiko 457.000 € gutxiago jasoko baitira. Hemen kontuan hartu behar da kopuruak aurreikuspenak direla, 2020ko ekarpenaren behin betiko kopurua 2021eko otsaielan jasoko baita.
- Kapital transferentzietan, diru-sarrerarik ez da aurreikusten. 2020an Eusko Jaurlaritzak Altzibar Iturriotz espaloia egiteko irisgarritasun laguntza bat egon zen.
- Azkenik, Finantza Pasiboen kapituluan, 500.000 €-ko mailegu bat eskatzea aurreikusi da. 2021erako Gipuzkoako Foru Aldundiak COVID19aren eraginez toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriak hartu ditu. Neurri horien artean dago udalen zorpetze mugak malgutzeko erabakia. Zehazki Oiertzungo Udalarari 1.100.000 €-ko zorpetze ahalmena aitortu zaio. Kopuru horretatik 2021eko inbertsio ahalmena mantendu eta aurrekontuak osatzeko 500.000 €-ko mailegua aurreikusi da. Urtearen bilakaeraren arabera, mailegu horren beharra aztertu eta exekutatu da. Kontuan hartzeko da, mailegua kontuan hartu gabe, 2021eko udal aurrekontuan 2020koa baino % 1 txikiago izango litzatekela.

5 Gastuak

Hurrengo taulan gastuen banaketa ikus daiteke kapituluka.

GASTUAK KAPITULUKA	2021	Aurrekontuaren zatia [%]	2020	Aldaketa [%]
1. Pertsonal gastuak	6.075.172,65 €	33,90	5.835.796,01 €	4,10
2. Gastuak ondasun arrunt.	5.577.737,84 €	31,12	5.669.362,47 €	-1,62
3. Finantza gastuak	16.797,79 €	0,09	36.422,20 €	-53,88
4. Transferentzia arruntak	3.265.307,64 €	18,22	3.267.608,70 €	-0,07

6. Inbertsio errealak	2.708.842,33 €	15,12	2.443.007,26 €	10,88
7. Kapital transferentziak	41.659,75 €	0,23	61.659,75 €	-32,44
8. Finantza pasiboak	1	0,00	1,00 €	0,00
9. Finantza pasiboak	235.640,00 €	1,31	275.331,97 €	-14,42
Guztira	17.921.159,00 €		17.589.189,36 €	1,89

5.1 Pertsonal gastuak

Udalaren pertsonal gastuetan % 4,1eko igoera aurreikusten da. Igoera honen arrazoiak bi dira bereziki: udaltzaingoan 2 pertsona gehiago kontratatuko dira, zerbitzua indartzeko sortu diren beharrei aurre egiteko. Horrez gain, 2020ko azaroaren 25eko udalbatzarrean udal langileen soldata igoera onartu zen, % 1,5eko hain zuzen ere. Horrez gain, 2021eko soldata igoeraren aurreikuspen bat ere txertatu da aurrekontuetan. Legearen arabera gehienez ere % 0,9koa izango da.

5.2 Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak

Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuan % 1,62ko jaitsiera aurreikusten du. Zerbitzu berrien gastuen doiketa eta urteko gastu arrunten doiketa egin da aurreko urtetako bilakaerari begira.

COVID19aren eraginez, garbiketa beharrei aurre egiteko 129.000 €-ko partida sartu da aurrekontuan. Honekin, protokoloek udal eraikin ezberdinetan eskatzen dituzten garbiketak egingo dira.

5.3 Finantza gastuak

Finantza gastuei dagokionean, azkeneko urtetako bilakaerari jarraituz, ordaindu beharreko interesak gutxitzen doaz. 2021ean 2020an ordaindutako interesen % 50a ordaindu beharko da, 16.797 € zehazki.

5.4 Transferentzia arruntak

Transferentzia arrunten kapituluan, aldaketa gutxi izango da 2021ean. Aurrekontuaren eranskinetan eta udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan biltzen dira dirulaguntza eta ekarpen guztiak. Urteko programa mantentzen den arren, hauek dira berrikuntza nagusiak:

- Udal Ikastola Partzuergoaren ekarpena 42.000 €-tan igoko da. COVID19aren ondorioei aurre egiteko protokoloen eraginez ratioak jaitsi ahal izateko, langileria gastuak igo dira. Ondorioz udalaren ekarpena egokitu da.
- Udalbiltzaren Geuretik Sortuak Kultur proiektua garatzeko, 15.000 €-ko ekarpen berezia egingo da.
- Euskara Ikasteko beken doakotasunaren bidean, horretarako partida 11.000 €-tan indartu da, aurreko ikasturteko matrikulazio kopurua ikusirik.
- Oiartzunen 1936tik aurrera izan diren giza eskubideen urraketak ikertzeko Aranzadiri 20.000 €-ko dirulaguntza emango zaio, lau urteko hitzarmen baten baitan.

- Etxebizitza programako dirulaguntzen partida 10.000 € jaitsi da, gaur egun dagoen eskaerara egokituz.

Horrez gain, urteroko partidak doitu dira, batez ere ikasle kopuruaren baitan doazen hitzarmenetakoak.

5.5 Inbertsio errealak

Inbertsio errealen kapituluan 2.708.842,33 €-ko gastua aurreikusi da. Jarraian 2021 urteko inbertsio nagusienak zerrendatzen dira:

Inbertsio errealak	
ZERBITZU ANITZEKO ERAIKINA: EGIA ENEA	1.611.000,00 €
ALTZIBARKO URBANIZAZIOA	600.000,00 €
APARKALEKU BERRIA	90.842,33 €
AUZOETAKO LANAK	60.000,00 €
PROIEKTUAK	50.000,00 €
POLIGONOEN BIZIBERRITZEA	40.000,00 €
HERRIBIDEAK KONPONDU	40.000,00 €
ASFALTATZE LANAK	35.000,00 €
IRAUNKORTASUN ENERGETIKOA	30.000,00 €
KONTADORE ALDAKETAK	25.000,00 €
KIROLDEGIKO EGOKITZAPENA	25.000,00 €
UDAL ERAIKINAK	20.000,00 €
EKIPAMENDU INFORMATIKOA	15.000,00 €
ESPALOIAK	10.000,00 €
BIBLIOTEKARAKO FONDU BIBLIOGRAFIKOA	10.000,00 €
BIDEGORRIA	10.000,00 €
MUGARRI BILDUMA	8.000,00 €
ZUNTZAREN ZABALPENA	7.000,00 €
UGALDETXOKO FUTBOL ZELAIA	6.000,00 €
TXAKUR PARKEAK	5.000,00 €

2021eko aurrekontuko inbertsio nagusienak Mendiburu 14ko zerbitzu anitzeko eraikina eta Altzibarko Urbanizazioa izango dira. Aurrenekoaren kasuan, eraikinaren lanak ordaintzeko urtez urteko planaren azken zatia izango da. Bigarrenaren kasuan, 600.000 € gorde dira lanak hasteko eta esleipena egiten den momentuan egokituko da diru partida hau. Altzibarren kasuan, aparkaleku berri bat ere eraiki beharko da, auzoan aurreikusten den garapen urbanistikoaren baitan.

Bi partida nagusi hauez gai, urteroko inbertsioak mantentzen dira: auzoetako lanak egiteko, poligonoen biziberritzerako, herribideak konpontzeko eta iraunkortasun energetikoa lortzeko bidean, argiteria sarea berritzeko lanetarako.

Inbertsioen alorrean, gobernu taldeak 2021eko aurrekontuetan oinarritzko beharrak aurreikusi ditu. Inbertsio hauei dagozkien proiektu eta txosten teknikoak zehazten diren heinean, aurrekontuan beharrezko aldaketak egingo dira, kreditu aldaketen bidez edo 2020ko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatuta.

5.6 Kapital transferentziak

Kapital transferentzien kapituluan ohiko partidak aurreikusi dira: San Markos zaborteziaren itxieraren ekarpena eta Hautzaro Ikastolari inbertsioetarako egiten zaion ohiko ekarpena.

Horrez gain, Arditurriko Meategien mantenurako OTASari 2020an egin zitzaion ekarpena kendu da, 2021ean ez baita mantenu lanik aurreikusten.

5.7 Finantza pasiboak

Finantza pasiboen kapituluan, udalak gaur egun dituen maileguen amortizaziorako ordainketak aurreikusi dira. Zehazki, 2021ean 235.640 € itzuli beharko dira, aurreko urtean baino % 14,42 gutxiago.

6 Laburpena sailka

6.1 Zerbitzu orokorrak

Zerbitzu orokorren zatia aurrekontua 3.805.957,70 €-koa izango da, %3,63 handituko delarik.

Sail honetan, nabarmentzeko aldaketak honakoak dira:

- Arraguako frontoiaren eraikinean, igogailua jarriko da. Udala jabekidea denez, lan hauen zati bat ordaindu behar du, zehazki 25.000 €.
- Udal eraikinen garbiketa kontratua 25.000 €-ko igoera aurreikusi da, batez ere Arizmendienea etxea irekitzen denerako.
- Mendiburu 14ko eraikinaren lanak ordaintzeko urte anitzeko planaren baitan, 1.622.000 € gorde dira, 2020an baino 111.000 € gehiago.

Azkenik, Zerbitzu Orokorraren baitan udaleko Informatika Sailaren funtzionamendu gastuak ere kontuan hartzen dira. 327.373,38 €-ko kostua izango du sail honek guztira, soldatez gain, informatikako mantenu orokorra (8.000 €), lizentzia eta garapen informatikoak (168.000 €) eta udal zuntz sarearen zabalpena (7.000 €) egingo direlarik. Aurreko urtearekin alderatuz % 10eko jaitsiera izango da. Hala ere, sortzen diren beharren arabera beharrezko aldaketak egingo dira, kreditu aldaketan bidez edo 2020ko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatuta.

Azkenik, sail honetan landa eremuko internet sarearen inguruko aholkularitza zerbitzu baten kontratazioa egiteko 10.000 €-ko partida gorde da. Urteak dira udalak lanketa ezberdinak egin dituela herriko auzoetan internet zerbitzua hobetzeko. Erakunde pribatu eta publikoen plangintza ezberdinek kontu hartzen ez dituzten eremuetan irtenbideak bilatzeko aholkularitza bilatuko du udalak.

6.2 Ekonomia, Ogasuna eta Ondarea

Sail honen urteko aurrekontua 690.231,05 €-koa izango da, aurreko urtearekiko %16,21 jaitsiko delarik.

Aurretik aipatu diren maileguen itzulketa eta interesetan jaitsiera izango da. Gainera, udal zergen kudeaketan laguntzeko orain arte izan den aholkularitza kontratua ez da berrituko, ondorioz 100.000 € gutxiago erabiliko dira.

Azkenik, sail honetan 2 urtetik behin egiten den kontu ikuskaritzaren kontratazioa aurreikusi da, 13.000 €-ko partida batekin.

6.3 Hirigintza

Hirigintzari dagokionean, 2020an 1.371.800 €-ko aurrekontua izango du.

Etxe hutsen alokairua sustatzeko udalak martxan duen programarako 28.000,00 € bideratuko dira, herrian dauden etxe hutsak Etxebiderekkin eta etxe jabeekin elkarlanean Oiartzuarren eskura baldintza duinetan bideratzeko. Horietatik 18.000 € etxebizitza bulegoa mantentzera bideratuko dira eta 10.000 € etxe jabeen dirulaguntzak emateko.

Hirigintza sailaren baitan honako inbertsioak aurreikusten dira: Altxibarko urbanizaziorako 600.000 €, auzoetako lanetarako 60.000 € eta poligonoak biziberritzeko 40.000 €.

Azkenik, 50.000 € gordeko dira proiektu teknikoak garatzeko.

6.4 Babes zibila eta herritarren segurtasuna

Sail honek 2020an 1.191.739,39 €-ko aurrekontua izango du.

2020an aurreikusi ziren kontratazio prozesuak ez dira martxan jarri, COVID19aren eraginez. Ondorioz, 2021ean egin beharko dira aurreikusten ziren 4 udaltzainen behin betiko lanpostuak betetzeko prozesuak. Horrez gain, beste bi udaltzainen kontratazioa ere aurreikusten da, sailaren aurrekontua % 10 igoko delarik.

6.5 Zerbitzu publikoak

2020an zerbitzu publikoak mantentzeko 2.788.046,22 € aurreikusten dira.

Programaz programa hauek izango dira gastu nagusiak:

- Ur zerbitzua:
 - o Estolderia zerbitzuaren eta edateko uraren etxez etxeko hornikuntzarako 822.533,63 € erabiliko dira guztira.
 - o Udalak edateko uraren sare propioa duenez, ohiko mantenurako 78.000 € bideratuko dira.
 - o Kontadore parkea berritzera 25.000 € bideratuko dira.

- Añarbeko Mankomunitatearen ekarpenak doitu dira 2021erako onartutako prezioen arabera (40.000 €-ko jaitsiera izango da), 165.000 € estolderia urak jasotzeagatik eta 145.000 € hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendurako.
- Hondakinen bilketa eta kudeaketa:
 - Bilketa kontratuaren partida 710.520€-koa izango da 2021ean.
 - Errefusaren eta organikoaren tratamenduak egiteko 167.000 € eta 131.000 €-ko partidak gorde dira hurrenez hurren. Hemen, tratamenduen prezioaren igoera eta hondakin kopuruaren igoera dela eta % 28 eta % 9 haziko dira partida hauek hurrenez hurren.
- Kale garbiketa:
 - Kontratuaren partida 530.500 €-koa izango da, 2020an baino % 7,5 gehiago.
 - 2020an kontratua berritu da eta zerbitzuak indartzeko beharra ikusi da.
- Argiteria sarearen kudeaketa eta mantenua:
 - Argiteria publikoaren kontsumo gasturako 135.000 € gorde dira.
 - Argiteria sarea mantentzeko 40.000 €-ko partida izango da.
 - Argiteria sarearen egin beharreko berrikuntza lan bereziak egiteko beste 30.000 € egongo dira.
 - Ikastetxeetan egiten den argindar aurrezpena saritzeko, aurrezpen horren erdia ikastetxeei bueltatuko zaie dirulaguntza bidez. Guztira, 6000 € gorde dira proiektu hau diruz laguntzeko.
- Parke eta lorategien mantenua
 - Parke eta lorategien mantenurako 170.203,68 € erabiliko dira.

6.6 Hezkuntza

Herriko ikastetxeen ekintzak laguntzeko 1.608.451,75 € izango dira 2021 urtean. Bertan aurreikusten dira Elizalde Herri Eskolako ohiko gastuen mantenua, Partzuergoaren ekarpena eta Haurtzaro Ikastolari dirulaguntza.

Azpimarratzekoa da 2021ean COVID19aren eraginez, partidak indartu behar izan direla:

- 42.000 €-ko ekarpen berezia, Udal Ikastola Partzuergoko langileen gastuei aurre egiteko.
- 129.000 €-ko partida gehigarria garbiketarako. Udal eraikinen garbiketaren baitan, Elizalde Herri Eskola ere sartzen da. Bertako garbiketa gehigarriak partida honetan sartuta daude.

Gainera, 13.000 € gordeko dira ikastetxeen eskolaz kanpoko ekintzak diruz laguntzeko.

6.7 Euskara

Euskara Sailak 501.826 €-ko aurrekontua izango du 2021ean.

Sail honetan 2021erako aldaketa nagusia Euskara ikasteko beken partidaren handitzea izango da. Orain dela bi urte, euskara ikasteko oinarrizko mailetan doakotasuna eskaintzea erabaki zen. 2019-2020 ikasturtean izandako matrikula igoerari aurre egiteko, partida 11.100 € igo da, 47.100 € arte.

Horrez gain, urteroko egitasmoak gauzatzeko partidak mantentzen dira:

- Oiartzun Irratiaren dirulaguntza mantentzen da, bertako jarduera dinamizatu eta komunikabide honen irismena mantentzeko. Guztira 54.700 € jasoko dira.
- Ttur-Ttur elkartearen dirulaguntza mantentzen da, 124.325,00 €-tan.
- A.E.Kren dirulaguntza mantentzen da, 24.500 €-tan.

6.8 Kultura

Kultura Sailaren aurrekontua 924.798,94 €-koa izango da.

Sail honetan aurrekontua mantentzen da orokorrean. Egin diren doiketak dirulaguntzen esparruan izan dira batez ere, aurrekontua egitasmo berrietara egokitzeko.

Ibargain Musika Eskolaren dirulaguntza ikasle kopurura doitu da, 2021ean 105.000 € bideratuko direlarik horretara. Kopuru honekin 2020-2021 ikasturtearen bigarren eta hirugarren hiruhilekoak eta 2021-2022 ikasturteko lehenengo hiruhilekoa ordainduko dira, beraz azkena ikasturte honetako matrikularen arabera doitu beharko da.

Azkenik, aurretik aipatu den moduan, 20.000 € gorde dira Oiartzunen 1936tik aurrera izan diren giza eskubideen urraketak ikertzeko.

6.9 Mendiak, ingurumena eta mugikortasuna

Sail honen aurrekontua 715.413,14 €-koa izango da 2021ean.

Ohiko partidak mantentzen dira:

- Behemendiren bitartez egiten diren ekintzetarako 40.000 €.
- Aldundiarekin elkarlanean, mendi garbiketarako Goi Larre planean parte hartzeko 20.000 €.
- Tokiko Agenda 21 sustatzeko 10.200 €.
- Xorrola zerbitzua: 125.000 €.

Inbertsioen atalean hauek izango dira nagusienak:

- Bidegorria mantentzeko 10.000 €.
- Herri bideak mantentzeko 40.000 €.

Herri bideen mantenuari dagokionean, inbertsio hauei dagozkien proiektu eta txosten teknikoak zehazten diren heinean, aurrekontuan beharrezko aldaketak egingo dira, kreditu aldaketen bidez edo 2020ko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatuta.

Azkenik, 35.000 €-ko diru poltsa gorde da COVID19ak sektore ekonomiko ezberdinetan eduki dezakeen eragina xamurtzen laguntzeko. Behar izanez gero, hemendik finantzatuko dira 2021ean merkataritza, turismo eta enpresa txiki eta ertainen laguntza programak.

6.10 Gizarte politika

Gizarte Ongizate sailaren aurrekontua 2021erako 2.439.914,14 €-koa izango da.

Politika soziala mantentzeko dagokionez, herrian dauden behar ezberdinei erantzuten jarraitzeko aurrekontuak diseinatu dira. Hauek dira sailaren ildo nagusiak 2021 urterako:

1. **Lehen mailako arreta** zerbitzua ematera 579.696,91€ bideratuko dira.
 - a. Arazo ekonomiko eta sozial larriak pairatzen ari diren oiartzuar familiei eta herritarrei babesa ematea. Horretarako guztira 235.000€ egongo dira (familiei laguntzatan, haurrei laguntzatan eta larrialdiko laguntzatan).
 - b. Bidez bide eta Bide Lagun zerbitzuetarako 54.000 € bideratuko dira.
 - c. Gizarte eta hezkuntza esparruko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko zerbitzua martxan jarriko. Gizarte Ongizate sailaren zerbitzu gehigarria izango da eta 80.000 € bideratuko dira.
2. **Etxez etxeko zerbitzua.** Menpekotasunak dituzten herritarren kopurua gora doa. Hau dela eta, Etxez Etxeko zerbitzuaren beharrak ikusita zerbitzua indartzeko erabakia hartu zen 2018an. 2019an aldaketak gauzatu ziren eta 2021ean zerbitzua zabaldua eta hobetuta mantentzeko aurrekontua egokitu da. Guztira 776.720,24 € izango dira horretarako.
3. **Herrigintzako proiektuak babestea:** Aurreko urtetan egin den moduan, herritik sortutako proiektuak laguntzen jarraituko da, batez ere, erakundeekin ditugun hitzarmenen bidez. Besteak beste, Harri Beltza (6.000,00 €), Arraztalo (53.000,00 €), El-Watan (13.000,00 €), Kilirikupe (5.000,00 €), Garabide (4.000,00 €), Agipad (10.000,00 €), Agintzari (27.000,00 €) eta Gazte Izanak (11.000,00 €) lagunduko dira.
4. **Agintzari.** Adingabekoen sozializazioaren eta integrazioaren alde egitea. Horretarako Agintzari Elkartearekin hitzarmena sinatu da eta 40.600 €-ko dirulaguntza bideratuko da.
5. **Jubilatuaren egoitza.** Behin-behineko egoitzaren gastuak ordaintzeko 10.000 € gorde dira.

6.11 Berdintasuna

2020an berdintasun politikak bultzatzeko 127.835,41 € izango dira. 2021ean berdintasun ikuspegia udal sail ezberdinetan txertatzeko lanarekin jarraituko da^{oo}.

Saileko ekintza nagusienak honakoak izango dira:

- Sentiberatze jarduerak egiteko 33.000 € gordeko dira.
- Udalean barne mailako formakuntza saioak egiteko 15.000 € egongo dira.
- Berdintasun plana egin eta bertako ekintzak gauzatzeko 10.000 € aurreikusi dira.

6.12 Kirola eta Gazteria

Kirol eta Gazteria Sailak 695.515,54 €-ko aurrekontua izango du 2021 urtean.

Kirolari dagokionez, elkarteak babesteko **dirulaguntzak mantenduko** dira. Ohiko funtzionamendu gastuak ordaintzen laguntzeko 54.000 € gorde dira eta kirol probak antolatzeko 13.000 €. Elkarteekin Kirol kontseiluan adostutako irizpide taularen baitan banatuko dira dirulaguntzak eta beraiekin elkarlanean taula hau egokitzen jarraituko dugu.

Udal kirol instalazioen mantenurako ere diru partidak gorde dira. Zehazki, azpiegitura hauetan hobekuntzak egiteko 31.000,00 € egongo dira, partida ezberdinetan banaturik. Kiroldagiko kudeaketaren kontratuak 187.500 €-ko kostua izango du.

Gazteriarri dagokionez, partida nagusia Ludotekaren kudeaketa izango da. 141.000 € bideratuko dira horretarako. Horrez gain bi dirulaguntza berri aurreikusten dira: 1000 € Agerrealde Kultur Elkartearekin hitzarmena egiteko eta 2000 € Oinherri proiektuari laguntzeko.

7 Egoera ekonomikoa.

Aurrekontu Orokorra. Udaleko egoera ekonomikoa normala da, ohiko diru-sarrerak (17.481.458,00 €.-) ohiko gastu eta amortizazioei (14.984.535,92 €) gainditzen dituztelako, horrela gaindikin hauek inbertsio gastuak finantzatzeko bideratuz.

Estabilitate Lege berriari jarraituz sarreretako lehenengo 7 kapituluak gastuetako 7 kapituluak baino txikiagoak dira, hau da 264.360,00 €-ko defizita du, baina Oiartzungo Udalak, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzko 9/2020 Foru Dekretu-Arauaaren arabera, 2021ean 1.102.710,00 €-ko defizita izateko baimena du.

8 Egoera finantzarioa.

Eskueran dauden errekurtsoen jariakortasun eta aldizkotasunak gastuen ordainketa puntuala onartzen du.

9 Orubearen Egoera

Udal ondarea gaur egun indarrean dagoen kontabilitatean, 2009an onartutako Inbentarioari esker eguneratua ikus dezakegu.

10 Laborazio Irizpideak



2021 ekitaldirako egin den Aurrekontu Proiektua 2020 urteko Aurrekontuaren exekuzioan informaziotik abiatuta egina izan da, era berean kontuan izan da etengabeko jarraipenaren betebeharrak, bai legeak ezarrita edo onartu diren betebeharren arabera, dena den, aurreko ekitaldiko etekinen arabera estimatu diren diru-sarrerak edo tarifa eta kuotan igoseraren ondorio bezala.

Oiartzunen, 2020ko abenduaren 15a

Alkatea
ALKATEAK,